

-TXOSTENAREN LABURPEN GRAFIKOA-

*Gertatutako guztia argitan jarri*


**EMAKUMEEN GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK  
MENDEBALDEKO SAHARA OKUPATUAN  
(1975-2021)**

Ikerketa honek Mendebaldeko Sahara okupatuko emakumeen eskubideen aurka Marokok egindako urraketei buruzko informazioa biltzen du, nortzuk diren erantzuleak, indarkeria horrek dakartzan ondorioak, emakumeek indarkeriari aurre egiteko dituzten moduak, justizia eskatzean izan dituzten esperientziak eta haien erreparazio eskaerak. Txostena honako hauek egin dute elkarlanean: alde batetik, Lurralde Okupatuko Emakume Sahararraren Gunea (EMSTO, erderaz) osatu duten emakume defendatzaile sahararrak eta, bestetik, Hegoa Institutua. Halaber, txostenak Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkartea-Euskal Fondoaren laguntza izan du.



# 81 EMAKUME SAHARARREN TESTIGANTZAK

Marokoko erregimenak gauzatutako urraketa baten edo gehiagoren biktimak



12-73 urte  
77 emakume biktima zuzenak  
Beste 4rak biktima baten senideak



Emakume guztiak giza-eskubideen defendatzaile profila dute, NBEaren giza eskubideen defendatzaileei buruzko deklarazioak adierazitakoarekin bat datorrena.

**%59**

saharar herriaren eskubideen aldeko mugimenduko erakunde batean parte hartzen dute.

## DOKUMENTATUTAKO GIZA ESKUBIDEEN URRAKETAK

Batez beste, emakume sahararrek, beren bizitzan zehar, 6 edo 7 urraketa pairatu dituzte. Indarkeria edozein adineko emakumeen aurka erabiltzen dute.



- %89** Bizitzeko eskubidearen urraketa
- %90** Tortura fisikoa
- %90** Tortura psikologikoa
- %68** Sexu-indarkeria
- %91** Askatasun eta segurtasun pertsonalaren urraketa
- %27** Lekualdatze behartuak
- %53** Ekonomia- eta lan-eskubideen urraketa
- %75** Eskubide sozialen urraketa (osasuna eta hezkuntza)
- %91** Kultura eskubideen urraketa



## BIZITZEKO ESKUBIDEAREN URRAKETA

Emakume hauek senideen edo ezagunen **judizioz kanpoko exekuzioak** bizi izan dituzte, horietako batzuk atxiloketa-zentro klandestinoetan.

Emakumeen % 33k **desagertze behartua** pairatu dute. Batzuek desagertuta jarraitzen dute eta bizirik irten zirenek haien lekukotza eman dute ikerketa honetan. Hilabete batzuk eta 16 urte arteko denboraldiak eman dituzte desagertuta.

*"Ni 1980an bahitu ninduten. Bi polizia-kotxe eta jendarmeria-kotxe bat izan ziren. 32 urte nituen, oso gaztea nintzen garai hartan. Torturatu gintuzten eta atxiloketa-zentro klandestino batetik bestera eraman gintuzten. 11 urte eman nituen desagertuta, 1991. urtera arte, hain zuzen. "*

*"16 urte nituenean ama hil zuten. Bera erizaina zen eta borroka iraultzailean parte hartzen zuen. Askotan mehatxatu zuten, borrokatzeari uzteko esaten zioten, bestela ondorioak izango zituela".*



*"Familia bereko sei lagun atxilotu gintuzten eta guztiak torturatu ere. Osabarekin hasi eta gero beste guztiok. Lehengusua torturatuz hil egin zuten. Ahotik eta sudurretik odola botatzen ikusi nuen eta apurka-apurka iraungi zen".*

*"Lau urtez desagertuta egon nintzen, nire familiak nire berri ez zuela, bizirik edo hilda nengo ez zekiela".*

*"1987an bahitu ninduten. Militarrez jantzitako bi gizon etorri ziren. Esan zidaten Segurtasunekoak zirela eta zenbait galdera egin behar zizkidatela, 2 edo 3 minutu besterik ez... Orduan konturatu nintzen ez zirela bi minutu izango, egunak baizik; desagertze behartua, gure amamari eta 1975. urtetik desagertuta jarraitzen duten beste hainbat pertsonari egin zieten bezala. Lau urte eman nituen atxilotuta/desagertuta".*

# TORTURA eta beste edozein tratu edo zigor krudel, anker edo apalesgarri



Giza eskubideen urraketa larri hau emakumeen atxiloketa/desagertze aldietan egin dute, komisarietan, atxiloketa-zentro klandestinoetan eta espetxeetan.

Beste testuinguru eta leku batzuetan ere agertzen da behin eta berriro, hala nola, manifestazioen, elkarretaratzeen edo protesten aurretik, bitartean eta ondoren, espazio publikoetan eta egun argiz.

*"Tresna bat zeukaten, "torturagailua" esaten ziotena. Zartailu bat zintzilik zeukan makila bat zen. Horrekin jotzen gintuzten eta min izugarria ematen zuen, jasanezina zen".*

*"Harategi baten moduko gela batera sartu ninduten, bertan kakoak eta kateak zeuden nonahi. Ohe bat ere zegoen. Horretara lotu ninduten. Ur atsitua bota zidaten aurpegira eta beste tipo batek zartailuaz ematen zidan oin-zola eta izterretan, konortea galtzen nuen arte. 11 emakume ginen egoera horretan. Zintzilikatzen gintuzten eta deskarga elektrikoak ematen zizkiguten, batzuetan belarrietan, beste batzuetan ezpainenan".*

Tortura psikologikoak pertsona emozionalki ezegonkortzeko helburua du; muturreko oinazea eragin nahi dio, haren buru-gaitasunak eta nortasuna kaltetuz.

*"Bertan jende saharar asko ikusi nuen eta torturak eragindako garrasiak entzuten nituen, oinetatik zintzilikatutako jendea ikusi nuen: Inkisizioa zirudien. Zera esaten zidaten, 'ez baduzu hitz egiten gauza bera gertatuko zaizu".*

*"Kartzelan ile luzea neukan eta erortzen hasi zitzaidan. Poltsa bat ekarri zidaten erortzen zitzaizkidan ile-sorta odoleztatuak biltzeko. Poltsa hori gure amari eraman zioten eta berak hilda nengoela pentsatu zuen. Bera ere torturatzeko modu bat izan zen".*

*"Bakarrik utzi ninduten zelda oso txiki batean, bi urte eta sei hilabetez".*



## TORTURA FISIKOKA


- %90** Kolpeak ematea, objektuekin
- %60** Objekturik gabeko kolpeak
- %88** Eskarnio publikoa
- %48** Zigorrak
- %36** Begiak estaltzea eta kaputxak jartzea
- %26** Erredurak edo ebakiak egitea
- %16** Muturreko posizioetan zintzilikatzea
- %15** Uretan sartuz itotzea
- %12** Gorputzean elektrizitatea ematea
- %10** Lan behartua
- %8** Animaliak erabiltzea torturatzeko
- %5** Poltsa erabiliz itotzea
- %3** Mutilatzea
- %3** Muturreko tenperaturetan jartzea

*"Begiak estalita nituen, ez nekien txakurrak bertan zeudela. Koxka egin zidaten eta begiraleek barre egiten zuten".*

## TORTURA PSIKOLOGIKOKA

- %95** Irainak
- %90** Mehatxuak
- %55** Beste batzuei egindako tortura ikustera edo entzutera behartzea
- %37** Loia eragozte
- %34** Elikagairik ez edo gutxiegi ematea
- %34** Baldintza osasungaitzak eta/edo higienerik eza
- %34** Inkomunikazioa
- %27** Kalumniak
- %23** Pilaketa
- %22** Isolamendu indibiduala
- %19** Senideak hiltzeko mehatxuak

## SEXU-INDARKERIA



Elkarrizketatutako **10 emakumetik ia 7k** sexu-indarkeria jasan dute Marokoko segurtasun-indarren eskutik. Gizateriaren aurkako krimen hori etengabe egin dute okupazioa hasi zenetik.

*"Espetxean ikusi nuen nola bortxatzen zituzten bi emakume saharar. Guztiak bortxatzen saiatu ziren. Badaude gauza asko ezin ditudanak kontatu".*

*"Eskuak lotuta nituen, gero akusazio faltsuak hasi ziren, hitz lizunak eta bortxaketa mehatxuak. Arropa kendu zidaten, kristalezko botilak ekarri zituzten eta horiekin bortxatuko nindutela esan zidaten".*

*"Saihetsean hainbeste jo ninduten abortua izan nuela. Bularretan eta tripan jipoitu ninduten eta, horren ondorioz, umea hilik jaio zen".*



- %76** Eskukatzeak eta ukituak
- %51** Biluzte behartua
- %51** Sexu-edukia duten hitzezko erasoak eta/edo burlak
- %51** Bularretan eta/edo genitaletan jotzea
- %27** Sexu-bortxaketa mehatxuak (haiei edota senideei)
- %13** Torturak haurdunaldian
- %9** Abortatze behartuak
- %5** Beste pertsona baten aurkako sexu-indarkeria ikustea edo entzutea
- %4** Sexu-bortxaketa
- %4** Sexu edukiko argazki behartuak
- %4** Deskarga elektrikoak bular eta/edo genitaletan
- %2** Sexu-esklabotza
- %2** Sexu-bortxaketak objektuak erabiliz
- %2** Sexu-mutilazioak (bularrak, genitalak)
- %2** Antzutze behartua



## ASKATASUN ETA SEGURTASUN PERTSONALAREN URRAKETA

*"Geure etxebizitzetan ere jazarrita gaude eta gure senide eta auzokoak bisitatzea debekatuta dugu. Konfinatuta gaude, baina konfinamendu politikoa da, ez pandemiak eragindakoa".*

- %81** Jazarpena eta zelatatzea
- %81** Adierazteko askatasunen urraketa
- %78** Biltzeko askatasunen urraketa
- %78** zirkulatzeko askatasunen urraketa
- %69** Egoitzaren bortxatzea
- %65** Bidegabekeria fisikoak
- %57** Elkartzeko askatasunen urraketa
- %42** Bahiketak

*"Orain metodo berriak erabiltzen ari dira, hala nola, difamazio kanpainak; niri buruzko albiste faltsuak argitaratzen dituzte oraindik".*

*"Manifestazioetan beti jipoitzen gaituzte, batean ere ez gara kolpeez libratu".*

*"Kotxera igo ninduten, haien artean kokatu eta bahituta eraman ninduten. Ez nituen 18 urte ere".*



- %39** Ondasunak suntsitzea
- %36** Difamazioa eta izen onaren aurkako erasoak
- %31** Telefono-entzuketak eta/edo postan esku-sartzea
- %27** Ondasunak kentzea edo konfiskatzea
- %9** Espetxeratze arbitrarioak
- %8** Atxiloketa arbitrarioak
- %4** Salaketa faltsuak
- %1** Dibortzio behartua



## LEKUALDATZE BEHARTUA

- %77** Birkokatzeak
- %59** Lekualdatze behartu kolektiboa
- %36** Kanporaketa
- %32** Konfinamenduak
- %32** Lekualdatze behartu indibidualak
- %14** Lekualdatze behartu familiarrak

Giza eskubideen urraketa larri hau Algeriako Tindouf probintzian errefuxiatutako herritar sahararrek pairatzen dute batez ere, baina Mendebaldeko Sahara okupatuan ere ematen da.

*"Aaiunetik bota eta Dakhlan bizitzera behartu ninduten. Aaiunera itzultzea debekatu zidaten".*



*"Bojador uztera behartu ninduten, eta itzultzen nintzenean kanporatzen ninduten berriro ere. Badia (landa), Smara eta Aaiun artean ibili nintzen. Okupazio indarrak nire izebaren Aaiuneko etxean agertu ziren gauzez eta berak ere hiria utzi behar zuela esan zioten".*



## EKONOMIA- ETA LAN- ESKUBIDEEN URRAKETA

Marokoren okupazio-politikak saharar herritarren bazterketa sozio-ekonomikoa eta lan-bazterketa sustatzen du eta horrek eragin nagusia du emakumeengan.

- %49** Lan-diskriminazioa
- %23** Lan-jazarpena
- %21** Lan egiteko debekua
- %16** Justifikaziorik gabeko kaleratzeak
- %12** Soldaten izozketa
- %12** Lan-prekarizazioa
- %7** Bizirauteko baliabideak kentzea (lurraldeko baliabide naturalak)
- %7** Lan-baimenak ukatzea
- %7** Diru-laguntzak kentzea edo kentzeko mehatxua egitea

*"Gazte saharar batek unibertsitatea bukatzen duenean badaki etxean geratu behar izango duela, edozein lanpostutarako bere aurretik kolono marokoarra baitago. Ez duzu aurkituko familia saharar bat ere hiru edo lau kide langabezia ez dituen".*

*"Ez daukat lanik. Lehen, diru-laguntza jasotzen nuen baina orain dela hiru hilabete kendu zidaten, aktibista naizela eta Gdeim Izik kanpamentuan parte hartu nuela diotelako. Eta gure baliabideak atzerriko"*

*"Baliabidetan aberatsa den lur bateko herri pobrea gara. Okupazio indarrek baliabide horiek espoliatzen ari dira".*



**!!** Inolako diru-sarrerarik ez duten emakumeek ikasketak dituztenen gehiengoa osatzen dute; hau da, bigarren-hezkuntzako ikasketak dituztenen % 86 eta unibertsitate-ikasketak dituztenen % 73. Ondorioz, okupazio testuinguru horretan, ikasketa-maila altua izateak ez du zertan ekarri lan-aukera edo diru-sarrera handiagoak.

Prekarietate ekonomikoak haien biziraupenaren funtsezko alderdietan eragiten du, hala nola, elikagaien oinarritzko saskia eskuratzeko aukera edo autonomia pertsonalaren mailan.

## ESKUBIDE SOZIALEN URRAKETA


Emakumeek osasun eta hezkuntza eskubideen urraketak salatzen dituzte.

**%56** Diskriminazioa arreta medikoan

**%56** Arreta medikoa ukatzea

*"Emakumeak jo gintuzten, nire neba ere bai, eta niri besoa hautsi zidaten. Anbulantzia batek ospitalera eraman gintuen baina bertan ez genuen arreta medikorik jaso".*

*"Ezin gara ospitalera joan, horiek ere instituzio polizialak edo militarrek direlako. Ez gara batere fidatzen ospitaleko langileekin. Gure medikuntza tradizionalak askotan salbatu gaitu".*



**%28** Ikasketa formalarik gabe

**%17** Lehen-hezkuntzako ikasketak

**%17** Bigarren-hezkuntza

**%11** Batxilergo-ikasketak

**%14** Unibertsitate ikasketak

**%9** Eskola Koranikoa

**%43** Eskola-jazarpena

**%18** Ikastetxeetatik kanporatzeko mehatxuak

**%11** Ikastetxeetatik kanporatzeak

**%15** Zigorrak

**%15** Notak beherantz faltsutzea

**%13** Eskola uztera behartzea

**%7** Bekak ukatzea

*"Nire 12 urteko alabaren ikastetxeko zuzendaritzatik deitu zidaten. Heldu nintzenean zuzendaria eta beste pertsona batzuk alaba galdekatzen eta jotzen ari ziren. Komisariara eraman gintuzten eta bera beste leku batera eraman zuten, berriz ere galdekatzeko. Bera jotzeko txandakatzen ziren eta bere mugikorrean saharar herriari edo Fronte Polisarioari buruzko berriren bat aurkitzen zuten bakoitzean berriro jotzen zuten".*

*"Inolako sarbiderik gabe hazi gara, eskoletako langile marokoarren eskutik estigmatizatuta. Suspenditzen digute, nota oso baxuak jartzen dizkigute, ezin dugu nahi dugun karrera aukeratu. Aktibisten seme-alabak izateagatik eta gure militantziagatik bekak jaso ezin ditugun gazteon zerrenda beltzean nago".*

*"Lau urtez ikasteko eskubidea ukatu zidaten. Horrek asko eragin zidan. Orduan jakin nuen arlo ekonomikoan kaltetu ninduten bezala, nire prestakuntza akademikoan ere kaltetzen ari zirela".*

## KULTURA-ESKUBIDEEN URRAKETA

**%86** Saharar etxebizitza tradizionalak (haimak) debekatzea

**%80** Saharar nazioaren sinboloak eramatea eta erakustea debekatzea

**%66** Saharar jantzi tradizionalak eramateagatik mehatxatzea

**%58** Sahararren historia eta identitatea ukatzea

**%51** Jaioberriak saharar izenekin erregistratzea debekatzea

**%43** Saharar jantzi tradizionalen erabilera debekatzea

**%30** Hassaniaz hitz egiteagatik mehatxu egitea edo jazartzea

**%23** Hassania debekatzea

**!!** Okupazioan zehar pairatu duten akulturazio behartua salatzen dute emakumeek.

*"Gdeim Izik kanpamentuaz geroztik, ez digute haimak jartzen uzten, mehatxu politikotzat hartzen dute".*

*"Haiek bezala hitz egitera behartu nahi ninduten, beren dialektoan, eta uko egin nien erabat, saharar atso bat naizela, beti hassaniaz hitz egin dudala eta hala jarraituko dudala".*

*"Ikusten dugu kulturalki okupatuak ere izan garela".*

# GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEN ERANTZULEAK

Emakumeen % 69k biktimario zuzenak identifikatzeko gai da. Guztiak gizonak dira eta, orokorrean, lurralde okupatuan bizi dira.

- %64** Polizia
- %25** Inteligentzia-zerbitzuak
- %18** Indar laguntzaileak
- %11** Armada
- %7** Jendarmeria



## GAINERA ZALATZEN DITUZTE

### Kolono marokoarrak

Emakumeen %21k zibil marokoarren parte-hartzea aipatzen du indarkerian.


**Nazioarteko eragileak** Errepresioaren aurrean isilik egoteagatik eta, interes geopolitikoak eta ekonomikoak direla-eta, Marokoko erregimenarekiko konplizitateagatik.

# GIZA ESKUBIDEEN URRAKETEK ERAGINDAKO ONDORIOAK

Emakume sahararren aurkako indarkeria politikoren ondorioak ugariak eta askotarikoak dira (fisikoak, emozionalak, familiarak eta sozio-ekonomikoak).


## ONDORIO FISIKOAK %91

- Min kronikoa **%70**
- Loaren alterazioak **%59**
- Gaixotasunak **%57**
- Askotariko zauriak **%54**
- Elikaduraren alterazioak **%39**
- Desgaitasun fisiko edo sentsoriala **%38**
- Ospitaleratzeak **%32**
- Hausturak **%28**
- Emankortasuna galtzea **%16**



## ONDORIO PSIKOLOGIKO ETA EMOZIONALAK %84

- Beldurra **%93**
- Depresioa **%35**
- Pentsamendu negatiboak **%29**
- Autoestimua galtzea **%9**
- Lotsa **%3**
- Suizidio-pentsamenduak **%1**
- Bizi-proiektua zapuztuta izatearen sentimendua **%1**



## ONDORIO FAMILIAR ETA SOZIO-EKONOMIKOAK %74

- Pobretzea edo bizi-baldintza materialak hondatzea **75%**
- Hezkuntza-aukerak galtzea **60%**
- Familia banatzea **10%**
- Estigma soziala **5%**
- Onespen soziala galtzea **2%**
- Sexu-harremanak kaltetzea **2%**



Indarkeriaren inpaktuak, maiz, kronifikatzen dira, haien larritasunagatik eta arreta mediko eta /edo psikosozial faltagatik. Gainera, ondorio mugatzaileak edo inhabilitatzaileak izan ditzakete emakumeen bizitzaren dimentsio batean edo batzuetan.

# INDARKERIARI AURRE EGITEKO MODUAK

Ikerketa honetan deskribatutako indarkeriaren erdian, emakumeek ondorio horiei aurre egiteko eta beren burua sostengatzeko erabiltzen dituzten zenbait mekanismo aipatzen dituzte.

- 74%** Erligioan babestea
- 71%** Familiaren ongizatea bilatzean zentratzea
- 51%** Familiaren babes afektibo eta materiala izatea
- 48%** Indarkeria salatzea
- 42%** Saharar herriaren eskubideak defendatzeko antolatzea
- 40%** Beren bizitzari zentzua ematea
- 17%** Emakumeen elkarleen bitartez antolatzea
- 12%** Laguntza psikosoziala bilatzea
- 3%** Isilik geratzea

# JUSTIZIARAKO SARBIDEA

Emakume sahararrei justizia eskubidea ukatzen zaie eta, biktima gisa, erabateko babesgabetasun egoeran daude. Indarkeria gertaeretan inplikaturako Marokoko segurtasun indarreko kiderik edo kolonirik ez da epaitu.

**%78**

giza eskubideen urraketak salatu dituzte

**0**

epaiketa

**%100**

zigorrik gabe jarraitzen dute

# ERREPARAZIO ESKAERAK

**%58**

**NEURRI  
POLITIKOAK**

Nabarmentzekoak dira independentzia, lurraldea berrezkuratzea eta okupazioa bukatzea.

**%58**

**NEURRI  
SOZIO-  
EKONOMIKOAK**

Nabarmentzekoak dira kalte-ordain ekonomikoa, lanerako laguntza, osasun-arreta eta hezkuntzarako sarbidea bermatuko duten neurriak.

**%44**

**BIKTIMEI  
LAGUNTZEKO  
NEURRIAK**

Nabarmentzekoak dira emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea, biktimak babestea, biktimen memoriari buruzko ekimenak, eta laguntza psikosoziala.

**%36**

**NEURRI  
JURIDIKO-  
LEGALAK**

Nabarmentzekoak dira indarkeriaren erantzuleak epaitzea eta birgaitze legaleko neurriak.

Emakume sahararrentzat, **ez errepikatzen bermeak** ondorengoak dira:

- Autodeterminazio eskubidea erabiltzea
- Independentzia lortzea
- Okupazioarekin bukatzea
- Biktimak babestea
- Errefuxiatuak itzultzea
- Preso politikoak askatzea exijitzen dute.

*"Gerra bizi izan nuen, urte askoz desagertzearen eta torturaren biktima izan nintzen, gero su-etenaren urteak bizi izan nituen eta, orain, berriro gerra. Ez dut inolako aldaketarik ikusten marokar erregimenean; gaur egun, modu berriak ditu, gure herria hiltzeko, kalean torturatzen, gure gazteak espetxeratzeko edozein arrazoi aurkitzeko. Gure herriak egunero pairatzen dituen jazarpenak XXI. mendeko estatu-terrorismoaren emaitza dira".*



Universidad del País Vasco  
Euskal Herriko Unibertsitatea



INSTITUTO DE ESTUDIOS SOBRE DESARROLLO Y COOPERACIÓN INTERNACIONAL  
NAZARTEKO LANIDUNETA ETA GAIKAPENARI BURUZKO IABAZETA INSTITUTUA



EUSKAL  
FONDOA